

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Solana kontseilariak LHko, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Aparteko Sariak banatu ditu 25 ikasleren artean

*Gainera, espediente onenarentzako aintzatespena eman die Oinarrizko Lanbide Heziketa egin duten hiru pertsonari*

Asteartea, 2018.eko apirilak 24

Hezkuntzako kontseilari María Solanak, Roberto Pérez zuzendari nagusiarekin batera, 2016-2017 ikasturteko LHko Aparteko Sariak banatu ditu gaur goizean. LHko 25 ikaslek jaso dute golardea: Goi Mailako Graduko 12 ikaslek, gradu ertaineko 9 ikaslek, oinarrizko LHko 3 ikaslek eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide-Irakaskuntzako ikasle batek. Gainera, espedienterik onenarentzako golardea eman zaie Oinarrizko Lanbide Heziketa egin duten beste hiru ikasleri.



Solana kontseilaria, Departamentuko arduradunekin eta sarituako ikasleekin.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan egin da gaur goizean, eta bertan, Solana kontseilariak aitortpen berezia egin die “ondo merezitako saria ekarri dien ikasleen lan handiari eta konpromisoari”. Solanak, Hezkuntza Departamentua Lanbide Heziketaren alde egiten ari den lana gogoratu du, izan ere, “Lanbide Heziketak funstezko eginkizuna izango du gaurko gazteen garapen pertsonalean eta profesionalean, eta prestakuntza-bideen eskaintza zabala jartzen du haien eskuetan, arrakasta pertsonala eta profesionala lortzea ahalbidetuko dien oreka egokia lor dezaten”.

Solanak aintzakotzat hartu du lanbide-heziketako Plan Estrategikoaren bitartez egiten ari den lana, izan ere, “ondo baino hobeto dakigu Lanbide Heziketako ikasketak ikasleen profil eta interesen arabera orientatu behar direla, eta ez, behiala egiten zen bezala, batxilergoa nahiz unibertsitate-ikasketak egiteko desegokitzak jotzen ziren irakasleen arabera. Lanbide-heziketa ikasleentzat gero eta erakargarriagoa den prestigiozko alternatiba da gaur egun, eta zuek zarete horren proba garbia”.

## Aitorturiko ikasleak

Hauexek dira Oinarrizko Lanbide Heziketako espedienterik onenaren saria jaso duten ikasleak: Samira Akchichou, Lizarrako ZIPEko Bulegoko Informatika zikloko ikaslea; Joseba Dorronsoro, Nekazaritza-Basozaintzako ZIko Nekazaritza-Jardueretako ikaslea, eta Aitor Ibañez, Lizarrako ZIPEko Elektrizitate eta Elektronikako ikaslea.

Gradu Ertainean, saritutakoak honako hauek izan dira: Sevil Rosenova, María Ana Sanz-eko Kudeaketa Administratiboko ikaslea; Miriam Cazador, Nekazaritza-Basozaintzako ZIko Nekazaritza-Ekizpeneko ikaslea; Adrián Martínez de Souza, Donibane ZIko Instalazio Elektriko eta Automatikoen zikloko ikaslea; Hamid Barkaoui, Virgen del Camino ZIPEko Soldadura eta Galdaragintzako ikaslea; Cristina Medina, Burlatako ZIko Sukaldaritza eta Gastronomiako ikaslea; Jessica Viviana Rivera, Burlatako ZIko Ile-apainketa eta kosmetika kapilarraren zikloko ikaslea; Roberto Soriano, ETI ZIPEko Sistema Mikroinformatiko eta eta Sareetako ikaslea; Virginia Luzuriaga, María Inmaculada LHIPeko Farmazia eta Parafarmaziako ikaslea, eta Ana Montavéz, María Inmaculada LHIPeko mendekotasun egoeretako pertsonak Artatzeko zikloko ikaslea.

Goi Mailako Graduan, hauexek dira espediente onenarentzako golardoa jaso dutenak: Ainhoa Bailo, ETI ZIPEko Administrazio eta Finantzetako ikaslea; Pello Sarratea, Nekazaritza-Basozaintzako ZIko Abeltzaintzako eta Animalien Osasun-Laguntzako ikaslea; Idoia Martín, Cuatrovientos ZI pribatuko Nazioarteko Merkataritzako ikaslea; Sandra Lafoz, Virgen del Camino ZIPEko Eraikuntza Proiektuetako ikaslea; Imanol Jesús García de Eulate, Energia Berriztagarrien Goi Mailako ZIko ikaslea; Enrique Cestau, Virgen del Camino ZIPEko Eraikuntza Metalikoetako ikaslea; Mikel Ros, Cuatrovientos ZI pribatuko Plataforma-anitzeko Aplikazioen Garapeneko ikaslea; Jon Jauregui, ESTNA-Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioko Arrisku Profesionalen Prebentzioko ikaslea; Rafael Amigot, Donapea ZIPEko Laborategiko eta Kalitatearen Análisi eta Kontrolerako ikaslea; Nerea Arrastia, ESTNA-Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioko Aho-Hortzetako Higieneko ikaslea; Alaitz Olazabal, Hezitzaileen Eskola ZIko Haur Hezkuntzako ikaslea, eta Daniel Martín, Donapea ZIPEko Automozioko ikaslea.

Gainera, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide-Irakaskuntzako Aparteko Saria eskuratu du Bernardo Alfredo Salinasek, Iruñeko Arte Eskolaren liburuari aplikatutako Arteen adarreko ikasleak.

Saria jaso duten Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasleek nahiz Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-irakaskuntzarenn goi-mailako graduiko ikasleek Estatuko Sarietan parte hartu ahalko dute, hala nahi izanez gero.

## Nazioarteko akordioa

Bestalde, Hezkuntzako kontseilari María Solanak nabarmendu du, LHaren aldeko apustu honetan, nazioarteko lankidetzaz-ildoak ere landu dela. Hartara, asteburuan, Roberto Pérez zuzendari nagusiak lankidetzaz-akordioa sinatu du Holandako ROC Midden-ekin (Holandako LH arloko hornitzaile handienetakoa), Italiako Corsozio degli Istituti Professionaliarekin (LH arloko ikastetxeen partzuergoa) eta Finlandiako Saimaa Vocacional Sampo Unibertsitatearekin (goi mailako LH institutua). Nave2 elkartearen (Europako lanbide-heziketa hobetzeko sarea) bitartez gauzaturiko akordio honi esker, prestakuntzaren arloko nazioarteko lankidetzaz sustatu nahi da bazkideekin, hezkuntzaz arloko erakundeekin, enpresekin, inguruko komunitatearekin eta eskualdeekin. Ikasleek Europako enpresetan eta zentroetan egindako prestakuntzaz-egonaldiak hobetu eta bultzatu nahi dira; irakasleek zabaltzeko bidean dauden teknologietan eta metodologia didaktiko berrietan duten prestakuntzaz bultzatu nahi da (4.0 industriari eta robotika kolaboratibo eta adimendunari lotutako teknologiak, LH Duala, proiektuetan oinarritutako lankidetzaz bidezko metodologia berriak eta hizkuntzen inguruko prestakuntzaz), eta LHaren nahiz hezkuntzaz orokorraren



Elizalde kontseilaria, agerraldiaren une batean.

arloko nazioarteko berrikuntza-proiektuetako parte-hartzea sustatu nahi da.

Nafarroa, Finlandia, Italia eta Holandaren arteko lankidetzak hori Erasmus+ programa europarraren bitartez finantzatuko da.